

APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Donostia Sustapena, S.A. sozietate anonimoa da eta, batez ere, Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuetan eta Kapital Sozietateen Legean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuan) xedatutakoaren arabera arautzen da.

Sozietate anonimoa denez, zuzenbide pribatuaren mende dago; hala ere, sektore publikoa arautzen duen araudiko alderdiak aplikatu behar zaizkio, zuzenbide pribatuko enpresa publikoentzako legean berariaz hala jasotzen denean.

Horrenbestez, Donostia Sustapena, S.A.ri aplikatzekoak zaizkio administrazio publikoari aplikatu beharreko zenbait arauditan jasotzen diren printzipio orokorrak, eta, zenbait kasutan, hala ezarrita dagoenean, baita legearen beraren hainbat apartatu ere; adibidez, 09/2017 legean, azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan ezarritakoak.

Bestalde, enplegu publikoko sozietatea denez, eta lan harreman bat ezartzen bada ere, bertan lanean hasteko berdintasun, lehia, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu behar dituela aipatzekoa da. Sozietateko langileekiko lan harremana lan hitzarmen propio baten bidez arauturik dago.